“Azken arau-aldaketa: 2026/10/10”

101/2005 FORU DEKRETUA, ekainaren 21ekoa; honen bidez zergei buruzko kontsulta idatzien eta zerga-ordainketako aurretiazko proposamenen prozedurak eta itzurpenaren aurkako klausula garatu dira (BAO ekainaren 30ekoa)

Martxoaren 10ean Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Araua onetsi zen. Horren bitartez Bizkaiko zerga-arautegi orokorra eraberritu eta eguneratu da eta goitik behera berrikusi dira Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzeko aplikatu behar dituen prozeduren egitura eta arauak.

Zerga Administrazioak eta zergadunek zerga-betebeharrak ahalik errazen betetzeko lankidetzan jardun behar dutela aintzat hartuta, onetsi berri den Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak ohiko mekanismo batzuk, kontsultak, sendotu ditu eta hirugarrenekiko sortzen dituzten lotura-ondoreak zabaldu ditu, eta mekanismo berriak sartu ditu zergadunen segurtasun juridikoa bermatzeko, hain zuzen ere zerga-ordainketako aurretiazko proposamenak. Horien bidez zergapekoek eragiketa konplexu batzuen berri eman diezaiokete Administrazioari egin aurretik eta eragiketaren ziozko zerga-zorraren zenbatekoa proposa dezakete (zenbatekoa loteslea izango da).

Eta beste alde batetik, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak orain arte arautegian izan den figurarik eztabaidagarrienetako bat, zergen arloko lege-iruzurra, kendu du eta haren ordez itzurpenaren aurkako klausula ezarri du; horren bidez zerga-zamatik negozio juridiko alegiazko edo bidegabeez baliatuta itzuri nahi direnen aurka joko da.

Hori dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2005eko ekainaren 21eko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe.

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
ZERGEI BURUZKO KONTSULTA IDATZIAK ETA ZERGA-ORDAINKETAKO AURRETIAZKO PROPOSAMENAK

1. artikulua. Aplikazio-eremua.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Administrazioari zergei buruzko kontsultak aurkeztu ahal izango zaizkio idatziz eta zerga-egitateen eta zerga-betebeharren ziozko ordainketako aurretiazko proposamenak egin ahal izango zaizkio, Ekonomi Itunean xedatutakoarekin bat etorriz, ondoko inguruabarretako bat gertatuz gero:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoko arautegia aplikatu behar izatea.

b) Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Aldundiko Zerga Administrazioaren organoek edukitzea ikuskatzeko eskumena.

c) Foru Aldundiko Zerga Administrazioak zergapekoekin dituen harremanetan bere eskumenak erabiltzearekin lotuta dauden beste inguruabar batzuk.

1. ATALA
ZERGEI BURUZKO KONTSULTA IDATZIAK

2. artikulua. Kontsultak aurkez ditzaketenak.

1. Zergapekoek zergei buruzko kontsulta idatziak aurkez ditzakete, hain zuzen ere euren zerga-egoeran zuzeneko eragina duten kasuei edo, zerga-betebeharra sortu ez arren, parte hartzen duten negozio edo egintza juridikoei buruzko kontsultak.

2. Halaber, ondoko betekizunak betetzen dituzten organismo edo erakundeek ere aurkez ditzakete:

   a) Erakundea talde baten edo kide batzuen interesak babestea edo ordezkatzea xede duen korporazioa edo elkartea izan behar da eta, gainera, kontsultak kide guztiak zuzenean ukitzen dituzten gaiei buruzkoak izan behar dira.

   b) Erakundearen forma juridikoa ezin da izan merkataritzako sozietatea.

   Zehatzago esanda, zergei buruzko kontsulta idatziak aurkez ditzakete Bilboko Merkataritza, Gintza eta Itsasketa Etxeak, Bizkaiko Jaurerriko Abokatuen Bazkunak, Ekonomialarien Euskal Elkargoak, zerga-aholkularien elkarteek, profesionalen elkargoek, sindikatuek, enpresari elkarteek eta Koordinazio eta Laguntza Teknikorako Idazkaritzari eskaera aurkeztu ondoren legebidezkotzat jotako erakunde guztiek (eskaerarekin batera aurreko betekizun guztiak betetzen direlako frogagiriak aurkeztu behar dira).

3. Zergei buruzko kontsultak egiteko legebideztatuta daudenek eurek zuzenean edo ordezkariaren bitartez aurkez ditzakete. Ordezkariaren bitartez aurkeztuz gero, kontsulta aurkeztean ordezkariak bere ordezkaritza frogatu behar du Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 45. artikuluko 2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

3. artikulua. Kontsulta-idazkiaren aurkezpena.

1. Kontsultak idazkian aurkeztu behar zaizkio Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiko Koordinazio eta Laguntza Teknikorako Idazkaritzari; idazki horretan ondokoak azaldu behar dira argi eta neurrian:

   a) Kasuaren aurrekariak eta inguruabarrak.

   b) Kontsultaren xedea; interesdunak zalantzak sortu dizkion zerga-xedapena zehaztu behar du eta, behar izanez gero, bidezko deritzon interpretazioa adierazi behar du.

   c) Zerga Administrazioarentzat iritzia emateko lagungarri izan daitezkeen gainerako datu, elementu eta agiri guztiak.

   d) Kontsulta baldin bada establezimendu iraunkor baten egoteari, mugaz gaindiko transakzio bati edo pertsona fisiko batek ondore fiskaletarako duen egoitzari buruzkoa, kontsultagileak espresuki adierazi beharko du inguruabar hori, alde batera utzi gabe zerga-administrazioak kontsultari erantzuteko ofiziozko irizpena emateko aukera duela, eta, gainera, honako datu hauek jasoko dira:

      a') Kontsultatagileak egoitza beste estatu batean badu, egoitza hori dagoen estatuak kontsultatzagileari esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia.

      b') Kontsultagilea kide den merkataritza- edo zerga-taldearen identifikazioa.

      c') Garatu diren edo garatu behar diren enpresa-jardueraren, transakzioen edo transakzio-segiden deskribapena. Nolanahi ere, deskribapen hori egingo da erabat errespetatuz sekretu komertzialaren, industrialaren edo profesionalaren arauketa eta interes publikoa.

d') Kontsultaren xede den transakzioak edo eragiketak ukitu litzakeen estatuak.

e') Kontsultari emandako erantzunak ukitu litzakeen pertsonak, zeinek beste estatu batean baitute egoitza, eta egoitza duten estatuak esleitu dien identifikazio fiskaleko zenbakia.

f') Aplikatzekoa den elkarren arteko laguntzari buruzko araudiak eska litzakeen beste datu batzoki.

2. Gainera, idazkian kontsultagilearen izena, abizenak, sozietate izena edo izendazioa, zerga-egoitza eta identifikazio fiskalerako zenbakia agertu behar dira (kontsulta ordezkariak aurkezten badu, berarenak ere bai), eta horrez gainera tokia eta data ere adierazi behar dira eta kontsulta aurkezten duenak (zergapekoa bera zein beraren ordezkaria) sinatu behar du.

3. Kontsulta ordezkariak aurkezten badu, kontsulta-idazkiari ordezkaritza frogatzen duen agiriaren kopia batu behar zaio.

4. Kontsulta-idazkiak ez baditu betetzen aurreko 1 eta 2. idatz-zatietan ezarritako betekizunak, interesdunari agindeia egingo zaio hamar egun pasatu baino lehen hutsunea ongitzeko edo behar diren agiri guztiak aurkezteko, eta adieraziko zaio hori egiten ez badu idazkia beste izapiderik gabe artxibatu ahal izango dela.

4. artikulua. Kontsulta izapidetzea.

1. Kontsulta jasotakoan, Koordinazio eta Laguntza Teknikorako Idazkaritzak erantzuna emateko beharrezkotzat jotzen dituen agiriak eskatuko dizkio interesdunari eta, horrez gainera, aurkeztutako kasuari aplikatu beharreko irizpidea ezartzeko beharrezkotzat jotzen dituen txostenak eskatu ahal izango dizkie Zerga Administrazioko beste organo batzuei edo beste zeinahi erakunderi.

2. Kasua ezohikoa izanik edo aurreko irizpideak bateratu beharra edo erantzunaren garrantzia dela-eta beharrezkoa dela uste izanez gero, erantzun-proposamena Bizkaiko Foru Ogasuneko Zergen Doktrinarako Batzordeari aurkeztuko zaio.

3. Baldin eta, Ekonomi Itunean edo Autonomia Erkidegoko zergen arloko koordinaziorako, harmonizaziorako eta lankidetzarako arautegian xedatutakoaren arabera, kontsulta beste organo batzuei ere bidali behar bazaie, Koordinazio eta Laguntza Teknikorako Idazkaritzak Idazkaritza Nagusi Teknikoari bidaliko dizkio kontsulta eta erantzun-proposamena, beharrezko izapideak egin ditzan, eta kontsultagileari horren berri emango dio. Horren ondorioz, prozedura etenda egongo da izapideak egiten diren bitartean.

   Aurreko paragrafoan aipatutako etendura-aldia ez da konputatuko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 85. artikuluko 5. idatz-zatian kontsulta ebazteko ezarritako gehieneko epealdian.

5. artikulua. Kontsultaren erantzuna.

1. Koordinazio eta Laguntza Teknikorako Idazkaritzak kontsultaren erantzun-proposamena (izaera eta ondoreak zehaztuta) bidaliko dio Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiari, ebatz dezan.

2. Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak erabakitzen duen erantzuna kontsultagileari jakinaraziko zaio. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 85. artikuluko 5. idatz-zatian ezarritako epealdian ez erantzuteak ez du ekarriko berekin kontsulta-idazkian adierazitako irizpideen onarpena, eta ez du izango inolako lotura-ondarerik Zerga Administrazioarentzat.

   Epealdi horretan ez erantzuna arren, Zerga Administrazioa ez da geratuko kontsulta berariaz ebatzi beharretik salbu; hau da, nahitaez ebatzi beharko du.

Hala ere, erantzuna jakinarazi arte zergapekoak kontsulta-idazkian ezarritako irizpideak aplikatzen baditu, ez du izango inolako erantzukizunik horren ondorioz izan litezkeen zergen arloko arau-hausteengatik.

3. Erantzunetan, organo eskudunak egitate eta inguruabarretan bat datozen aurreko kontsulten erantzunetan erabilitako irizpideak aplikatu behar ditu; hala egiten ez badu, administrazio-doktrinaren aldaketa azaldu behar du.

6. artikulua. Erantzunaren ondoreak.

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 85. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituzten kontsulten erantzunek lotura-ondoreak izango dituzte Zerga Administrazioarentzat, arau horretako 86. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz; bestela, informaziorako besterik ez dira izango.

   Halaber, zergapekoek zerga-betebeharra sortu gabe parte hartzen duten negozio edo egintza juridikoei buruz egiten dituzten kontsulten erantzunak informaziorako besterik ez dira izango, bai eta ordezkariaren bitartez aurkeztutako kontsultenak ere ordezkaritza frogatzen ez denean.

2. Lotura-ondoreak sortzen dituzten zergei buruzko kontsulta idatzietako irizpideak nahitaez aplikatu beharko dizkiete zergapekoei zerga-ordainketan diharduten organoek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 86. artikuluko 1. idatz-zatiko azken paragrafoan ezarri den bezala.

7. artikulua. Kontsultak artxibatzea.

1. Ondoko kontsultak artxibatu egingo dira:

   a) Foru dekretu honetako 1. artikuluan aipatu ez diren zerga-egitateei eta zerga-betebeharrei buruzkoak.

   b) Foru dekretu honetako 2. artikuluan aipatu ez diren pertsonek aurkezten dituztenak, batez ere zerga-arautegiaren aplikazioaren edo interpretazioaren inguruko zalantza generikoak sortzen dituztenak.

   c) Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 85. artikuluko 2. idatz-zatian aipatutako epealdian aurkezten diren kontsultak, baldin eta Zerga Administrazioak kontsultaren xede den zerga-betebeharren inguruko prozedura, errekurtsoa edo erreklamazioa abiarazi badu.

   d) Foru dekretu honetako 3. artikuluko 4. idatz-zatian aipatutako agindeiaren ondoren akatsak ongitzen ez zaizkien kontsultak.

2. Proposamena artxibatzeko erabakia Koordinazio eta Laguntza Teknikorako Idazkaritzak hartuko du eta gero aurkeztu duenari jakinaraziko dio. Erabaki horren aurka ezin izango da aurkeztu ez errekurtsorik ez erreklamaziorik. tipo.

2. ATALA
ZERGA-ORDAINKETAKO AURRETIAZKO PROPOSAMENAK.

8. artikulua. Proposamenak aurkez ditzaketenak.

1. Zergapekoek ondoko eragiketen ziozko zerga-ordainketako aurretiazko proposamenak aurkez ditzakete, euren zerga-egoeran zuzeneko eragina badute:

   a) Enpresa berregituratzeko eragiketak (Sozietateen gaineko Zergaren bategiteen, zatiketen, aktiboen ekarpenen eta baloretrukearen araubide bereziaren ondoreetarako zehaztutakoak, edo antzekoak) eta zerga-taldeak eratzeko eragiketak.

b) Pertsona fisikoen ondarea berrantolatzeko eragiketak.

c) Beste zerga administrazio batzuek esku duten eragiketak eta nazioarteko eragiketak.

d) Enpresa edo lanbide jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoen edo erakundeen inbertsio-proiektuak, inbertsioaren kopurua 450.000 euro baino gehiago denean.

e) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Errentaren gaineko Zergaren ordainketan kenkaria edo hobaria aplikatzeko eskubidea ematen duten eragiketak, haren zenbatekoa 250.000 euro gutxiago izanez gero.

f) 600.000tik gora euroko eragiketa edo negozio juridikoak.

2. Orobat, aurreko idatz-zatian aipatutakoez beste kasu batzuetan ere aurkez daitezke zerga-ordainketako aurretiazko proposamenak, hain zuzen ere Zerga Administrazioak berariazko baimena ematen duenean, zergapekoak eskatuta; eskaeran zergapekoak egingo den eragiketa deskribatu behar du eta eragiketaren garrantzi berezia edo konplexutasuna azaldu behar du. Koordinazio eta Laguntza Teknikorako Idazkaritzak ondokoak hartuko ditu kontuan baimen-eskaera ebazteko: eragiketaren garrantzi handia edo konplexutasuna, zergapekoaren egitura eta tamaina ekonomikoa eta eragiketak haren zerga-betebeharren zenbatekoan izan dezakeen eragina. Ebazpenaren aurka ezin jarri izango da ez errekurtsorik ez erreklamaziorik.

3. Zerga-ordainketako proposamenak aurkezteko legebideztatuta daudenek eurek zuzenean edo ordezkariaren bitartez aurkez ditzakete. Ordezkariaren bitartez aurkeztuz gero, kontsulta aurkeztean ordezkariak bere ordezkaritza frogatu behar du Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 45. artikuluko 2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

9. artikulua. Proposamenen aurkezpena.

1. Zerga-ordainketako aurretiazko proposamenak zergaegitatea gertatu baino lehen aurkeztu behar zaizkio Zerga Administrazioari, eta zergaldia duten zergen kasuan, proposatzen dena aplikatu behar den zergaldia amaitu baino lehen.

2. Zerga-ordainketako aurretiazko proposamenak idazkian aurkeztu behar zaizkio Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiko Koordinazio eta Laguntza Teknikorako Idazkaritzari; idazkiari agiri hauek atxiki behar zaizkio:

a) Kasuaren aurrekariak eta inguruabarrak, eragiketa zergatik egin den eta haren ondoreak eta emaitza ulertu ahal izateko.

b) Eragiketak zerga-zorrean izango duen eragina (kopurua) edo, proposamena aurkezten denean eragina zenbatesteko nahikoa datu eduki ezean, eragin hori kalkulatzeko erabil daitezkeen irizpideak.

c) Proposamenaren xede den eragiketari dagozkion zerga-kontzeptuak eta zergaldiak, eta eragiketak bakoitzean duen eragina.

d) Zerga Administrazioarentzat iritzia emateko lagungarri izan daitezkeen gainerako datu, elementu eta agiri guztiak.

e) Zerga-ordainketako aurretiazko proposamenarekin edo hari buruzko ebazpenarekin informazio-trukea egin behar bada beste estatu batzuekin edo nazioarteko edo nazioz gaindiko erakunde batzuekin, elkarren laguntzarako tresna bat dela bide, inguruabar hori berariaz adierazi behar da; nolanahi ere, prozedura ebazteko eskuduna den zerga-administrazioak ofizioz hartu dezake aintzat inguruabar hori. Aurrekoaz gainera, datu hauek ere adierazi behar dira:

I) Zerga-ordainketako aurretiazko proposamena aurkezten duen erakundea parte den merkataritzako taldearen edo talde fiskalaren identifikazioa; halaber jaso behar dira kontsultak eragindako erakunde ez-egoiliar guztien identifikazio fiskaleko zenbakiak edo kode baliokideak.

II) Enpresa-jardueraren deskripzioa, bai eta egin diren edo egingo diren transakzioena zein transakzio-segidena ere. Edozelan ere, deskripzio hori egiterakoan erabat errespetatu behar dira sekretu komertzial, industrial edo profesionalaren arauketa eta interes publikoa.

III) Proposamenaren xede den transakzioak edo eragiketak eragin liezaiekeen estatuak.

IV) Prozeduraren ebazpenak eragin liezaiekeen beste estatu batzuetako pertsona egoiliarrak.

V) Aplikatzekoa den elkarren laguntzari buruzko araudiaren ondorioz eska litezkeen beste datu batzuk.

3. Gainera, idazkian zergapekoaren izena, abizenak, sozietate izena edo izendazioa, zerga-egoitza eta identifikazio fiskalerako zenbakia agertu behar dira (proposamena ordezkariak aurkezten badu, berarenak ere bai), eta horrez gainera tokia eta data ere adierazi behar dira eta kontsulta aurkezten duenak (zergapekoa bera zein beraren ordezkaria) sinatu behar du.

   Proposamena ordezkariak aurkezten badu, proposamen-idazkiari ordezkaritza frogatzen duen agiriaren kopia batu behar zaio.

4. Zerga-ordainketako aurretiazko proposamenak ez baditu betetzen aurreko idatz-zatietan ezarritako betekizunak, interesdunari agindeia egingo zaio hamar egun pasatu baino lehen hutsunea ongitzeko edo behar diren agiri guztiak aurkezteko, eta adieraziko zaio hori egiten ez badu idazkia beste izapiderik gabe artxibatu ahal izango dela.

10. artikulua. Proposamena izapidetzea.

1. Zerga-ordainketako aurretiazko proposamena jasotakoan, Koordinazio eta Laguntza Teknikorako Idazkaritzak ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen dituen agiriak eskatuko dizkio interesdunari, txosten teknikoak edo ekonomikoak barne, eta, horrez gainera, aurkeztutako kasuari aplikatu beharreko irizpidea ezartzeko beharrezkotzat jotzen dituen txostenak eskatu ahal izango dizkie Zerga Administrazioko beste organo batzuei edo beste zeinahi erakunderi.

2. Koordinazio eta Laguntza Teknikorako Idazkaritzak prestatutako proposamena Bizkaiko Foru Ogasuneko Zergen Doktrinarako Batzordeari aurkeztuko zaio, funtsean berdina den kasuren bat lehenago ebatzi ez bada edo aplikatu beharreko interpretazio-irizpideek berrikuntzarik ez badakarte.

11. artikulua. Ebazpena.

1. Koordinazio eta Laguntza Teknikorako Idazkaritzak erantzun-proposamena bidaliko dio Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiari, ebatz dezan.

2. Ebazpenak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 90. artikuluan araupetutako ondoreak izango ditu; beraren bidez zergapekoak aurkeztutako proposamena onetsi edo ezetsiko da, arrazoiak azalduta.

3. Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak ematen duen ebazpena kontsultagileari jakinaraziko zaio. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 89. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritako epealdian ez erantzuteak ez du ekarriko berekin zergapekoak

proposamenean adierazitako irizpideen eta kopuruen onarpena, eta ez du izango inolako lotura-ondarerik Zerga Administrazioarentzat.

Epealdi horretan ebazpena ez jakinarazi arren, Zerga Administrazioa ez da geratuko proposamena berariaz ebatzi beharretik salbu; hau da, nahitaez ebatzi beharko du.

Hala ere, ebazpena jakinarazi arte zergapekoak zerga-ordainketako aurretiazko proposamenaren idazkian ezarritako irizpideak aplikatzen baditu, ez du izango inolako erantzukizunik horren ondorioz izan litezkeen zergen arloko arau-hausteengatik.

4. Beste zerga administrazio batzuek ere esku badute, foru dekretu honetako 4. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko da.

12. artikulua. Proposamenak artxibatzea.

1. Zerga-ordainketako aurretiazko proposamen hauek artxibatuko dira:

   a) Foru dekretu honetako 1. artikuluan aipatu ez diren zerga-egitateei eta zerga-betebeharrei buruzkoak.

   b) Foru dekretu honetako 8. artikuluan xedatutakoaren arabera aurkezteko legebideztatuta ez dauden pertsonek aurkezten dituztenak.

   c) Foru dekretu honetako 9. artikuluko 4. idatz-zatian aipatutako agindeiaren ondoren akatsak ongitzen ez zaizkienak.

   d) Zerga-egitatea gertatu ondoren aurkezten direnak eta, zergaldia duten zergetan, proposamena aplikatu behar den zergaldia amaitu ondoren aurkezten direnak.

2. Proposamena artxibatzeko erabakia Koordinazio eta Laguntza Teknikorako Idazkaritzak hartuko du eta gero aurkeztu duenari jakinaraziko dio. Erabaki horren aurka ezin izango da aurkeztu ez errekurtsorik ez erreklamaziorik.

II. KAPITULUA
ITZURPENAREN AURKAKO KLAUSULA

13. artikulua. Kide anitzeko organoa.

Zergapeko baten jokabidea itzurpena (Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 163. artikuluko 3. idatz-zatian aipatua) dela adierazteko eskumena Bizkaiko Foru Ogasuneko Zergen Doktrinarako Batzordeak du.

14. artikulua. Itzurpenaren aurkako klausula aplikatzeko prozedura.

1. Prozedura ofizioz hasiko da organo eskudunaren erabakiaren bidez, kasuan kasuko zerga aplikatzeko prozeduraren arabera, hura izapidetzen ari den funtzionarioak proposatuta; proposamenean ondokoak agertu behar dira, gutxienez:

   a) Burututako egitate, egintza edo negozio juridikoak.

   b) Sortutako ondore juridiko edo ekonomikoak.

   c) Burututako egitate, egintza edo negozio juridikoa Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 14. artikuluko 1. idatz-zatian aipatutako inguruabarretan gertatu delako frogaketa.

2. Erabakia, txostenarekin eta jakingarri gertatzen diren gainerako agiriekin batera, zergapekoari eta interesdunei jakinaraziko zaie, eta hauek hamabost eguneko epea izango dute, oro har, nahi dituzten alegazio eta agiri guztiak aurkezteko eta egokiesten dituzten frogak aurkezteko edo proposatzeko.

3. Alegazioak jaso eta frogak, bidezkoa bada, egindakoan, espedientea Koordinazio eta Laguntza Teknikorako Idazkaritzari bidaliko zaio eta gero honek Bizkaiko Foru Ogasuneko Zergen Doktrinarako Batzordearen esku jarriko du ebazpen-proposamen arrazoiztatuarekin eta haren ondoriozko likidazio-proposamenarekin batera.

4. Espedientea jasotakoan, Bizkaiko Foru Ogasuneko Zergen Doktrinarako Batzordeak zerga aplikatzeko eskumena duen organoari txostena zenbait alderditan sakontzeko eskatu ahal izango dio, irizpena prestatu ahal izateko. Hori gertatuz gero, espedientea berriz ere interesdunen esku jarriko da eta hauek hamabost eguneko epealdia izango dute, oro har, eskubidez komeni zaiena alegatzeko eta nahi dituzten agiriak aurkezteko.

5. Zergen Doktrinarako Batzordeak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 163. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritako epean eman behar du irizpena, hasierako espedientea, edo landutako txostena duena, jasotzen denetik zenbatuta; ebazpenean itzurpenaren aurkako klausula aplikatzea bidezkoa edo bidegabea den adierazi behar da. Gero ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio, bai eta organo eskudunari ere, zerga aplikatzeko prozedura izapidetzen jarraitu dezan.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Bizkaiko Foru Ogasuneko Zergen Doktrinarako.

Batzordea. Bizkaiko Foru Ogasuneko Zergen Doktrinarako Batzordearen osaera eta jarduna Ogasun eta Finantza Saileko diputatuaren foru aginduaren bidez araupetuko dira.

Bigarrena. Martxoaren 16ko 38/2004 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudiaren aldaketa.

Bat. Martxoaren 16ko 38/2004 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudiko 41. artikuluko 4. zenbakia aldatu da eta honela geratu da:

> «4. Zergapekoek zergei buruz egiten dituzten kontsulta idatziei erantzuteko eta aurkezten dituzten zerga-ordainketako aurretiazko proposamenak ebazteko proposamenak aztertzea, izapidetzea eta prestatzea.»

Bi. Martxoaren 16ko 38/2004 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudiko 41. artikuluko 11, 12 eta 13. zenbakiak aldatu dira eta honela geratu dira:

> «11. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 14. artikuluan araupetutako itzurpenaren aurkako klausula aplikatzea proposatzeko espedienteak izapidetzea.
>
> 12. Ogasun eta Finantza Sailaren menpean dauden gainerako organoek euren eginkizunetan, hain zuzen ere zergak aplikatzeko edo zehapenak ezartzeko prozeduretan, nola jarduten duten barrutik kontrolatzeko jarduketak diseinatzea eta kudeatzea, Bizkaiko Foru Ogasunaren Barne Kontrolari buruzko Araudian ezarritakoari lotuta.
>
> 13. Laguntza teknikoa ematea Ogasuneko zuzendari nagusiari eta Zergak Kudeatzeko Zuzendariordetzaren, Ikuskapen Zuzendariordetzaren eta Zerga-bilketako Zuzendariordetzaren arteko jardueren koordinazioa bultzatzea, eta Ogasuneko zuzendari nagusiak ematen dizkion gainerako eginkizun guztiak.»

Hirugarren. Tributazioko aurretiazko proposamen kalifikatuak.

1. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduko hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren kasuetan, Zerga Administrazioak tributazioko aurretiazko proposamen kalifikatua izapidetuko du, xedapen gehigarri horretan ezarritako arauekin bat.

2. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduko hirugarren xedapen gehigarriko 1. zenbakian aipatzen diren eragiketak egiten dituzten zergadunek dute tributazioko aurretiazko proposamen kalifikatua aurkezteko legitimazioa.

Sozietateen gaineko Zergan zerga-baterakuntzaren araubide berezian tributatzen duten zergadunen kasuan, entitate nagusiak dauka tributazioko aurretiazko proposamen kalifikatua aurkezteko legitimazioa.

Zenbaki honetan ezartzen denaren ondorioetarako, foru dekretu honetako 8. artikuluko 3. zenbakian ezartzen dena aplikatuko da.

3. Tributazioko aurretiazko proposamen kalifikatua aurkezteko epea haiek ondorioak sortu behar dituzten zergaldia amaitu eta hurrengo hiru hilabeteak igarotakoan amaituko da.

   Nolanahi ere, Zergari buruzko Foru Arauko 53. artikuluko 5. zenbakian jasotzen den kasuan, tributazioko aurretiazko proposamen kalifikatua aurkezteko epea luzeagoa izango da; izan ere, ekintzailetza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba berezia zuzkitzeko erabili den kontabilitateko emaitza positiboari dagokion ekitaldiko urteko kontuak onartzeko ezarrita dagoen epean amaitzen denera arte luzatuko da.

4. Tributazioko aurretiazko proposamen kalifikatua aurkezteko idazkian Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduko hirugarren xedapen gehigarrian kasu bakoitzerako zehazten diren kontuak jaso behar dira, eta idazki horri xedapen horretan galdatzen diren agiriak erantsi behar zaizkio; halaber jaso behar ditu foru dekretu honetako 9. artikuluko 2. zenbakian aipatzen diren alderdiak, esanguratsuak baldin badira.

5. Tributazioko aurretiazko proposamen kalifikatuek ez badituzte betetzen xedapen gehigarri honetako 2., 3. eta 4. zenbakietan ezartzen diren baldintzak, besterik gabe artxibatuko dira.

6. Tributazioko aurretiazko proposamen kalifikatuak izapidetzean foru dekretu honetako 10. artikuluko 1. zenbakian ezarritako arauak bete behar dira.

   Zerga Doktrinaren Zerbitzuak txostena egingo dio Ogasuneko zuzendari nagusiari, non tributazioko aurretiazko proposamen kalifikatua ebazteko garrantzitsuak diren egitezko eta zuzenbidezko elementuak aztertuko dituen.

7. Ogasuneko zuzendari nagusiak modu arrazoituan ebatzi behar du zergadunak aurkeztutako tributazioko aurretiazko proposamen kalifikatua onestea edo ezestea.

   Tributazioko aurretiazko proposamen kalifikatua aurkeztu eta hiru hilabetean ebazpen espresua eman ez bada, proposamena ezetsitzat joko da.

8. Manu batzuen kasuan, manuok aplikatzeko beharrezkoa bada tributazioko aurretiazko proposamen kalifikatua onartua izatea eta hura aplikatzeko baimena izatea, zergadunak ezin izango ditu manuok bere autolikidazioan aplikatu harik eta proposamen hori onesten duen jakinarazpena jaso ez duen arte.

9. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluan eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduko 48. eta 49. artikuluetan ezarritakoa gorabehera, zergaren autolikidazioa aurkezteko epea amaitzen den egunean ebatzi gabe badago zergadunak Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 53. artikuluko 5. zenbakian jasotzen denerako aurkeztutako tributazioko aurretiazko proposamen kalifikatua, zergadunak hilabeteko epea izango du -bere proposamena onesten duen Ogasuneko zuzendari nagusiaren ebazpenaren jakinarazpenaren egunetik zenbatuta- Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazio osagarria aurkezteko, emaitza aplikatzeari dagokionez Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 53. artikuluan jasotzen den zuzenketarako aukera erabili ahal izateko. Kasu horretan, aukera hori zerga aitortzeko borondatezko epearen barruan erabiltzen ari dela ulertuko da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikulu horretan ezartzen diren ondorioetarako.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena. Aurretik aurkeztutako zergei buruzko kontsultak.

1. Foru dekretu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra indarrean jarri aurretik aurkeztutako zergei buruzko kontsultei; aitzitik, kontsulta horiek aurkeztu direnean indarrean egon diren prozeduren arabera izapidetuko dira.

2. Foru arau hori indarrean jarri ondoren aurkezten diren zergei buruzko kontsulta idatziei foru dekretu honetan xedatutakoa aplikatuko zaie, nahiz eta aurretik sortutako zerga-egitate edo zerga-betebeharrei buruzkoak izan.

Bigarrena. Lege-iruzurraren espedienteak.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra indarrean jarri aurretik egindako egintza edo negozioetako batean zerga-legeriaren arloko iruzurra izan dela ohartuz gero, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 26ko 3/1986 Foru Arauko 24. artikulua garatu duen arautegia aplikatuko zaie, orain arte bezala, iruzurra antzematen den zerga aplikatzeko prozedura izapidetzen eguna gorabehera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra. Arau-indargabeketa.

Foru dekretu hau indarrean jarritakoan indargabetuta geratuko dira bertan ezarritakoarekin bat ez datozen lerrun bereko eta beheragoko lerruneko xedapen guztiak, batez ere maiatzaren 13ko 74/1997 Foru Dekretua, zergen arloko lege-iruzurra adierazteko prozedura ezarri duena.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Arautegiaren gaikuntza.

Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio foru dekretu honetan xedatutakoa garatzeko eta aplikatzeko behar diren arau guztiak emateko.

Bigarrena. Indarra hartzea.

Foru dekretu hau 2005eko uztailaren 1ean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2005eko ekainaren 21ean.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,.

JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,.

JOSE LUIS BILBAO EGUREN.